

Javier Correa, Kolonbiako sindikalista

«Paramilitarrek jendea izutzen dute, Gobernuak bultzatuta»

Sinaltrainal Kolonbiako Janarien Industriako Langileen Sindikatuko idazkari nagusia da Javier Correa. Munduko herrialde gehienetan lan nekagarria eta gogorra dena, heroinen jarduna da Hego Amerikako herrialdean. Aurten hil dituzten 50 sindikalistak kontuan hartu, osterantzean.

Testua eta argazkiak:

URTZI URRUTIKOETXEA

JAVIER CORREAK Bogotako egoitzan hartu gaitu ostiral goiz batez. Bizkartzainarekin ibili ohi bada ere, sindikatuaren egoitza etxe xumea da kanpotik, gutxieneko segurtasun neurriak baino ez dituena. Bai baitakite gau eta egun grabatzen dietela sarrera eta gura dutenean erasoko dietela, edozein neurri hartuta ere.

Zein da orain bertan herrialdearen egoera? Alvaro Uribe presidentek behin baino gehiagotan esan du paramilitarrak desmobilizatu egin direla. Alvaro Uriberen Gobernuaren aldetik ekimen gogorra dago sindikalisten eta biztanleria orokorraren aurka, diseinatuta daukaten estrategia orokorraren baitan: kanpoan sinestarazi nahi dute ez dagoela gatazka politiko, armatu eta sozialik, talde terroristak eta ekintza terroristak baino ez daudela. Hala, Gobernu saiatu da paramilitarismoa ikusezin eginen, bera baita paramilitarismoaren kudeatzailea. 90eko hamarkadan Uribe Antioquiako gobernadore zenean talde paramilitarrak legeztatu zituen Convivir segurta-

“Uriberen Gobernuak kanpoan sinestarazi nahi du ez dagoela gatazka politiko, armatu eta sozialik, ekintza terroristak baino ez daudela”



sun kooperatiba izena emanaz, proba laborategia izan zen hura eta gaur herrialde osora hedatu du. Reinserción izeneko prozesuarekin hasi zen 975 legearen bidez; zigorgabetsun legea da eta estatu barruan sartzen dituzte talde paramilitarrak. Ez dute egiaren erdirik esaten krimenei buruz, eta iruzur egiten diete nazioarteko iritzi publikoari eta biktimei. Ekintza eta sarraski gutxi batzuen berri ematen dute, baina egile material gutxi batzuk soilik salatuz, eta atzeko guztia ezkutatu: egile intelektualak, Gobernuo kideak, enpresak, multinazionalak, hilketa eta biztanleriaren aurkako terrorismo prozesu horren atzean egon den guztia ez da ageri. Hainbeste hilketa, tortura eta desplazamenduren atzean daudenak saritzeko modua da, hain dira apalak zigorrak. Gainera hainbat buru paramilitarrek espetxetik jarraitzen dute ekinean, erosotasun guztiakin bizi dira, txantajeak eta salerosketak egiten.

Gobernua parapolitika eskandaluetan murgildu da, 63 parlamentario uribista baino gehiago daude nahasita talde paramilitarren aferetan. Ralitoko bileretan egon ziren [2001eko uztailaren 23an Estatuko hainbat ordezkari eta Auco paramilitarrek egindako bileraz dihardu] estrategia prestatzen, paramilitarismoaren eta narkotrafikoaren menpeko errepublika eratzeke. Horren aurrean konstituzio epaitegiaren aurka jotzen du Gobernuak eta Venezuela eta Ekuadorren aurkako gatazkak nahi ditu; narkotrafiko eta paramilitarismoarekin nahasten dituzten aldiro antzekoak egiten dituzte arreta desbideratzeko.

Hain gertakari larriekin, zein argumentu darabil Gobernuak paramilitarregandik bereizteko?

Paramilitarismoa bizi-bizirik eta oldar betean dago. Gobernuak dio desmobilizata daudela, eta oraingo kriminalei "talde berri" deitu die, ez dutelako onartu nahi, legezkatze eta guzti ekintzan jarraitzen dutela defentsarik gabeko biztanleen aurka, nazioarteko presiorik ez jasotzeko. Konfiantza sortu nahi dute, aspalditik ari dira ahaleginean AEBekin TLC (Merkataritza Libreko Tratatu) izenpetzeko, hau da, gure lurralde guztia multinazionalen menpe jartzeko, hemendik haien industrietarako behar duten oinarritzko materia eraman dezaten.

Eta hor sartzen da zuen aurkako erasoak.

Aurtengo iraila arte 41 sindikalista hil dituzte, iaz urte osoan baino gehiago. Mehatxu kopuruak ere gora egin du, desplazamenduak etengabeak dira, eta hori gutxi balitz epaitegietara eta espetxera garamatzate. Preso daude hainbat sindikalista, Alvaro

Demanda Coca-Colari

"Kolonbiak ikertu nahi ez duenez, kanpoko erakundeen elkartasunari esker demanda jarri zuten Miamiako hegoaldeko barrutian, Coca-Cola zigortzea eskatuz Isidro Segundo Gilen hilketagatik, Bucaramangako lantegiko langileen bahiketa eta torturagatik, eta Cucuta hiriko lankide bat bahitzeagatik, besteak beste. Hasieran aintzat hartu zuen epaileak, eta iazko abuztuan esan zuen ez zeukala jurisdikziorik, ez zegoela babesik AEBetan horren aurka joateko. Martxoan helegitea aurkeztu genuen Gorte Federalean. Espero dugu prozesu legal horrek egia argitu eta justizia ekartzea".

Uribe eta enpresak gure ekintza sindikala kriminalizatzen dabiltzalako.

Cauca haraneko kainaberadietako langileen greba bultzatu dugu egunotan. Armadak 33 lagun zauritu eta zeukaten guztia erre die; gero, militarrek tankeetan sartu dituzte fabrikara lanera, greba puskatzeko. Hara Caucako indigena eta nekazarien aurka ere zelan diharduten, etengabeko bonbardaketa eta operazio militarretan. Eta hirietan paramilitarrek kontrolatzen dituzte auzuneak, Gobernuak bultzatuta jendea izutzen dute, etxeratze deiak ezarri eta mugimendua debekatzen dute, kontrolak egiten dituzte, zein auto sartzen den ikusteko, jendea ezin da etxetik irten edo paramilitarrei esan behar diete nora eta zertara doazen. Alvaro Uriberen Gobernuak biktima bezala agertu nahi du baina funtsean haiek dira erantzuleak.

Zer dela eta Coca-Colaren aurkako kanpaina?

Oso erraza da: multinazionalak dira paramilitarren ekintza horren onuradun. Estatuaren estrategia multinazionalen alde da, eta Coca-Cola zehazki nahasita egon da langileen aurkako ekintzetan. Coca-Colako bederatzita langile hil dituzte, Carepako gure egoitza suntsitu dute, kideak desplazatu dituzte, gure eta gure senideen aurkako heriotza mehatxuak etengabeak dira. Coca-Cola profitatu da sindikalgin-tzaren aurkako erasoaz, are era basatiagoan erreprimitzeko eta prekaritate baldintzak ezartzeko lanean. Horregatik nazioarteko elkartasunera jo behar izan dugu, hainbat elkartek bultzatu gaituzte zigorgabetsun horren aurka eta horren harira sortu zen Coca-Colaren aurkako munduko kanpaina, langileen bizi errespetatu dezan multinazional gringo horrek. Presio tresna izan nahi dugu, bere egin dezan giza eta langileen eskubideen defentsa.

Zer jazo zen Carepan?

1994tik hasi ziren kideak hiltzen hiri horretan. 1996an, langileen eskubideen plegua





izenpetu behar zen egunean, paramilitarrak enpresan sartu eta Isidro Segundo Gil langilea hil zuten; zenbait ordura langileak bildu zituzten eta arrastiko lauretara arteko epea eman zieten mobilizazio sindikala bertan behera utz zezaten. Gero paramilitarrek eurek atera zituzten eskualdetik sindikalistak. Eta Coca-Colak epaileari eskatu zion langileok kaleratzeko eskubidea, lanpostuak utzi zituztela eta! Beraiek ordaindu zituzten txartelak eta ondotoxo zekien mehatxuengatik alde egin behar izan zutela, bizia salbatzeko.

Gauetz, gure egoitzari su ematen zioten, izua sortzeko batetik, eta bestetik froga guztiak desagerrarazteko, etorkizuneko salaketak eragozteko. Carepako egoitza suntsitu eta gero, hil batzuetara egindako txostenean irakur daiteke paramilitar haiek enpresan jarraitzen zutela. Eta azkenik langileek utzi egin behar izan zuten. Hainbat botilaratze enpresatan ikusi ditugu buruzagiak paramilitar ezagunekin berbetan; segurtasun buruak militarrek edo paramilitar ohiak dira. Ondorioa jazarpena eta muntaia izan dira, gu epaiketara eramateko, publikoki seinalatzeko, atxilotu gaitzaten, eta Estatuaren estrategiaren antzera hilketa eta jazarpena erabiltzeko.

Zenbat heriotza mehatxu jaso dituzu zuk?

Iaztik aurrean arte hamabost jaso ditut. Baina paramilitarrez gain jazarpen publikoa ere badago, fiskaltzaren aurrean epaiketara jarri dit Coca-Colak, kalte ordainak eskatuz. Gurekin ezin dutenez, familia izutzerara pasa dira. Alaba sarri mehatxatu dute, hainbat hiritatik atera behar izan dugu. Azkena Popayanen (Cauca hiriburua), handik ere atera behar izan dugu eta orain atzerrira bidaltzekotan gaude, joan den hiri guztietan jazarri eta mehatxatu dutelako. Presionatzen segitzeko eta nire jardunbidea eragozteko eta salaketak ez egiteko,

Coca-Cola multinazionalaren kontrako kanpaina martxan du Correaren sindikatuak.

“Buruzagi sindikal askok badakigu egunen batean hil edo epaiketara eramango gaituztela, kitatze zerrenda horretan gaudela”

oraintsu etxean sartzen ere saiatu ziren. Eta iaz kontrol “bitxi” batean gerarazi gintuzten autoan, baina jende gehiagorekin gindoazen eta alde egin ahal izan genuen. Ni desagerrarazteko asmoa zutela uste dugu. Familiari erasotzea oso gauza sentibera eta biguna da, eta aurrera egitea oso gogorra egiten zaigu.

Ez daukazu uzteko asmorik?

Ez. Uste dut isiltasuna izan dela enpresarioek biztanleen aurkako estrategiaren zutabeetako bat. Eztabaida hori geneukan Sinaltrainalen, isilpean generaman borroka, beldur genien ondorioei, eta 2002an salaketa publikoa egin eta nazioarteko kanpaina hasi zenetik ikusi dugu lanean jarraitzea ahalbidetu digula. Kolonbiako herria era masiboan altxatzen den egunean, sistema hau eta krimenak salatzen dituenean, orduantxe egingo dio nazioarteko komunitateak benetan presio Kolonbiako Gobernuari. Horregatik uste dugu isiltasuna ez dela onerako ez sindikaturako ez langileentzat, horrek zigorgabetasunarekin jarraitzea baino ez dakar, eta izu eta hilketen estrategien betikotzea. Hala betikoez irabaziko lukete, multinazionalak eta Kolonbian boterea kontrolatzen dutenek, horregatik jarraituko dugu krimenak salatzen.

Baina ulergarria da beldurra.

Bai, noski, giza faktore hori, sinesmena osoa izanik ere, ulergarria da. Buruzagi sindikal askok badakigu egunen batean hil edo epaiketara eramango gaituztela, kitatze zerrenda horretan gaudela. Argi esan digute errepresio mota mehatxutik eliminazio fisikora joango dela, jakitun gara. Baina sindikalista bat hil edo Coca-Colako langile bat mehatxatzeaz bat, lankide bat eroritakoan hamar altxatzen dira erresistentziarekin jarraitzera, ideiak zabaltzera eta multinazionalak eta Kolonbiako erregimena salatzen. ■